



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2007-12-16**

V. URTEA 1.315. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Goian, Zizurkilaren patinetan jolasean eta behean, Asteausun orientazio proban. N. URBIZU

ZIZURKIL ETA ASTEASU KIROLAREN HIRIBURU ASTEBURU HONETAN

TOLOSALDEA Gaztetxoek izan zuten zer gozatua patinen jolasean eta orientazio proban; gaur Zizurkilaren herri kirolak izango dira 4

ENHA bultzatu dute eskualdeko mendi taldeek eta mendizaleek

TOLOSALDEA Federazio txartela egiterakoan EHNA erabiltzeko deia luzatu dute » 6

Otaño aizkolariak positibo eman du dopin kontrolean

IBARRA Ibartarrak azaldu duenez, «ez dut legez kanpo dagoen sustantziarik hartu» » 6

ELENA BALANUTA
KANTU IRAKASLEA

«Gehien betetzen nauena ikasleei ikaskuntza on bat ematea da»

LEITZA Leitzan eskolak ematen ditu asteazkeneko kantu irakasleak 7



N. GARZIA

Gabon hauetan saia gaitezen hondakin gutxiago sortzen!

8 aholku gauzak berrerabiltzeko

1. Erabili exean duzun papera opariak biltzeko (erabiltako opari papera, egunkari papera...).
2. Ahal izanez gero, erabili itzultzeko edo berriz erabiltzeko ontziak eta artikulatu birziklatuak.

3. Bota baino lehen, konpondu tresnak eta objektuak bizitza-zikloa luzatzearen.

4. Oparitu edo eman (elkarrean, edukiontzia berezia...) jada behar ez duzun arropa.

5. Altxariak, etxeko tresna elektrikoak, liburuak, etab. bota baino lehen, jasotzen dituen elkarrekin badagoen jakin; bestela erabili altzariak eta traste zaharrak jasotzen dituen zerbitzua.

6. Kontsumitu behin eta berriz erabili daitezkeen aparatuak eta tresnak: espain-zapiak, mahai-tresnak, edalontziak, platerak, argazki-kamerak, bazar-aitzurak, pizgailuak, boligrafoak, inprimagailuarentzat berriz kargatutako kartutxoak...

7. Erabilpen berriak eman gauzei: kristalezko poteak gauzak gordetzeko, prestatutako janaria izozteko brik-etan jaso, oihalak eskulanetan erabili...

8. Erosi bigarren eskuko produktuak (arropa, autoentzako piezak...).

11 aholku hondakinak murrizteko:

1. Jostailu edo aparatu elektriko eta elektronikoak aukeratzeko, lehenetsi sare elektrikoak konektatzen direnak; bigarrenik, berriz kargatzeko bateriak dituztenak eta, azkenik, berriz kargatzeko pilak erabiltzen dituztenak.
2. Opariak erostekoan, aukeratu hondakinak sortzen ez dutenak.
3. Eraman erosketarako poltsa edo karrotxoa eta erosi baino lehen egin erosketa-zerrenda.
4. Hautatu ontzi eta bilgarri gutxien dituzten produktuak. Ez onartu beharrezkoak ez diren poltsak.
5. Erosi tokiko elikagaiak eta gainera, garai horretakoak direnak: bilgarriak eta garraioa aurreztuko dituzu.

6. Aukeratu produktu kontzentratuak, berriz betetzekoak eta ontzi familiarak.

7. Ahal izanez gero, erosi ontziratutako gabeko produktuak behar duzun kopurua hautatuz, alferrikakoak diren bilgarriak alde batera utzi.

8. Murriztu etxeko produktu arrikutsuen erabilera: pinturak, barnizak, disolbatzaileak... Erabili horien ordezko produktu ekologikoagoak, hala nola ur-pinturak.

9. Altxera bota etxera iristen den propaganda komertziala.

10. Erabili posta elektronikoa eta inprimatu ezinbestekoa dena bakarrik.

11. Erabili orrien bi aldeak.

B Blogteka **Banda, Gabonetako emanaldiak prestatzen**

Tolosako Musika Bandak urtean Udarekin hitzartuta dituen 25 emanaldietatik gehienak jaien inguruan biltzen dira: Inauteriak, sanjoanek eta Gabonak, noski. Eta Gabonetan presentzia handia du Bandak kalean. Urtero lau emanaldi izaten ditu, denak kalean, eta aurtenera horiek prestatzen ari da.

Hilaren 24an bi emanaldi izango ditu. Eguerdian Zerkausion kontzertu bat eskainiko du Euskal Herriko eta atzerriko Gabon doinuekin. Gaueko 20:00etan berri,

ohiko kalejira egingo du Gorriti plazatik abiatuta 'Olentzaro' doinu ezagunarekin. Plaza Zarran ohiko geldiunea egingo du abesbatzekin eta herriarekin batera 'Mesias sarritan' interpretatzeko. Ekitaldi polita eta jendetsua izaten da urtero, herrian bizi direnekin batera, kanpoan bizi diren tolosar asko biltzen baita egun horretan plaza Zarran. Kalejira jarraitu eta beti bezala plaza Berrian dantzarako doinu batzuk eskainiz bukatuko du bere ekitaldia Musika Bandak.

Beste bi emanaldiak Urte Zaharreko kalejira eta Errege Eguneko kontzertua izango dira.

Gabon zoriontsuak Bandaren partetik.

Musika Banda

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/banda>

Urteko ohiko batzarrerako deialdia

Urte sasoi honetan ohi bezala, ikastolaren bizitzan oso garrantzitsua den ekintza hau gauzatzera goaz: Urteko Ohiko Batzarra burutuko dugu. Batzar hau abenduaren 19an, asteazkena, izango da eta Usabalen egingo dugu arratsaldeko 19:30ean.

Bertan jorratuko diren gaiak:

-Aurreko urteko aktaren berri jaso.

-Balantzea eta Aurrekontua. Kuantak.

-Ikasturteko egitasmoa eta emaitzak.

-Partaide berriak Juntan.

-Akta onartzeko 2 kide izendatzea.

-Galdera eta eskeak.

Esan bezala oso gustukoa izango genuke gure artean izango bazi-na egun horretan ekintza garrantzitsu hau burutzean.

Laskorain ikastola

<http://www.tolosaldeko-hitza.info/blogak/laskorain>

Z Zenbakia**1949.**

urtean Emiliano Mujika idazlea hil zen Tolosan.

1925.

urtean Juan Manuel Lertxundi Baztarrika idazlea hil zen, Tolosan. *Polli ta Pello bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira* liburua aritaratu zuen, 1910ean. Horrez gain, *Oyal-de Basoko Maitagarri*, *Euskal-Iztiya* eta *Gauzen ikaskizunak* umeentzako liburua idatzi zituean.

Z Zurea de hitza **Eguberrien edertasuna gustuko dut**

TOLOSA ■ Badakit askok eta askok gorrotu dituztela Eguberriak eta horren inguruko kontsumismoa. Konsensez naiz hortaz baina niri ikaragarri gustatzen zaizkit Eguberriak eta fetxa hauen harira herrian sortzen den

giroa. Horregatik jaiotza honi argazkia ateratzea okurritu zait eta HITZARA bidaltzea, sekzio berri hortan parte hartuz. Eskerrik asko aukera hori emateagatik. Garaian garaikoa. AITOR LABAEN

E Esanak

«Zerkausiaren sabaiko irekigunetik zer ikusi asko da; Tolosa moderno eta tradizionala»

«Tolosak badu bizi-indar berezi bat, herri dinamika bat. Beti omen dugu ekitaldiren bat»

«Tolosa herri bizia dela islatzen du, eta hori egungo gizartearen altzor handia da»

KIKE AMONARRIZ
Polifazetiko

E Eztabaida **Eguberriak gainean ditugu. Zer iritzi duzu?**

■ **Iker.** «Aupa! ba ni gustura ibiltzen naiz Eguberrietan egia esan. Oporrak izateaz gain (irakaslea naiz), familiarekin elkartzea eta izugarri gustatzen zait. Bai, bada, kit, kontsumismoa eta hori dena baina ez zait gehiegi inporta. Nik neurrian gastatzen dut, gainera urtean behin ez digu kalte handirik egingo. Eguberrien guztioi eta urte berri on!».

■ **Kepa.** «Harrigarria iruditzen zait aurreko mezuak dioena. Familia-

rena ondo dago, baina urte guztia daukagu familiarekin egoteko. Zergatik finkatu behar digu egutegiak noiz egon behar dugun familiarekin eta noiz ez? Zergatik izan behar dugu denok ardiak bezalakoak? Kontsumitu beharreko fetxak dirudite, janaria askoz garestiago, jendea dendetan kontsumitzen. Izan gaitezten arduratsu mesedez eta kontrolatu. Kontsumo arduratsua eraman eta familia urte osoan zaindu beharreko zer-bait da».

■ **Ane.** «Etxean umeak ditugunetik berreskuratu dugu guk ilusioa Ga-

bonetan. Bestela, egutegian bi aste hauek zuzenean ezabatu egingo nituzke, dudarik gabe. Baina ttikiek ematen digute guri ilusioa baita fetxa hauetan. Halare, bat nator aurrekoarekin. Lotsagarria iruditzen zait kontsumo arekiko egiten den deskontrola».

■ **Elena.** «Niri ez zaizkit batere gustatzen fetxa hauek. Ez dakit zergatik baina nahiko triste pasatzen ditut eta zait kalera ateratzea gustatzen. Melankolia puntu bat sortarazten didate. Gure etxean ez ditugu era berezian ospatzen, egun normalak dira eta eskerrak

egia esan, izan ere, ez nuke nahi nire soldata horretan xahutzea...».

■ **Asier.** «Niretzat egun normalak dira, denentzat izan beharko luke-ten bezala. Kristautasunak bultzatutako jai batzuk dira eta ni ez naiz kristatu. Ez dut Jainko horrengan sinesten eta, beraz, ospatzeko ezer ez dut. Gero El corte ingles bezalako merkatalguneak ondo asko arduratu dira guztientzat oso jai garrantzitsuak direla esaten eta burua jaten. Telebistak eta komunikabideek ere hor lan ederra egin duzue... Familiari opariak egunero egin behar zaizkie».

@ Elkarriketa digitalak.
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK elkarriketa digitalak eskaintzen ditu bere webgunean. Hala, elkarriketatuari uanean galderak bidaltzeko aukera ematen du, baita lehenago galderak bidaltzea ere. Elkarriketatua HITZAREN egoitzara etorri eta bertan erantzun die zuen galderari. Ondoren gure webgunean ikusgai izango dituzue galderak eta elkarriketatuen emandako erantzunak. Beraz, sartu eta izan zaitze zu zeu kazetari, interesgarri deritzozun galderak proposatzu. Uanean konektatua zuzenean izango zara gurekin.

www.tolosaldeko-hitza.info

Immigrazioari buruz

» Iritzia

Miren Zeberio
Ereiteko kidea

Artikuluak idaztea proposatu zidatenean, elkarte multikultural baten izenean egitearen erantzukizunak halako larritasun bat eragin zidan.

Duela gutxi, ordea, komunikazio alternatiboari buruzko jardunaldi batean izan nintzen, eta haxe da atera nuenaren mamia: go-gaigarria bazaizu dauden komunikabideekin konformatzeari, egin zaitez zerorri komunikabide! Hemen ez dugu hori lortuko, baina bai behintzat, parte hartzea. Beraz, azkenik gogoz hartu nuen lana. Nola uko egin gure hitza plazaratzeari, sarritan

komunikabideen immigrazioa islatzeko moduari onartezina baderitzogu?

Besteak beste, halako isla mugatu egi aurre egiteko antolatutako Ereite Elkarte Multikulturaletik, etorkinaren egunaren inguruko jardunaldiak. Baina tira, ez dut lekutxo hau hauen berri ematen xahutuko, nahi duenak aurkituko baititu programazioaren kartelak Tolosa zein Ibarako kaleetan.

Behin idatzeko erabakia hartuta, nire hurrengo kezka zera izan zen: nola egin Hitza-keskainitako lekutxo honi ahalik eta etekinik onena ateratzeko? Zertaz hitz egin? Nola enfokatu haingai zabala lerro batzuetan?

Tinta mordoa isurtzen da immigrazioaren inguruan. Ikus-entzunezkoetan ere etengabe ager-

tzen da (nahiz eta sarriegi, ez oso egoki), eta kaleetan ere, hain justu hedabideek emandako islaren arabera, zenbait garaitan, ahoz aho dabilen gaia da. Beraz, ez litzateke lekuz kanpo egongo, gure helarazi ohi diren berri eta irudi hauek plazaratzeko modu partzial horiek kritikatzeko aprobetxatzea. Baina lekutxo xume eta txikia da hau egin behar horretarako.

Beste aukera oso logiko bat, etorkinen inguruan ari garenean, integrazioari buruz hitz egiteko arena izango litzateke. Baina horrek ari luzea ekarriko luke atzetik: Atzerriartasun Legetik ondorioztatzen diren traba eta eskubide ukatzeak, erroldatzeko trabak dakartzan trabak, diskurtso politikoan immigrazioa eta se-

gurtasun-ezaren arteko lotura ezartzeko obsesioa...

Baina idazki honekin lortu nahiko nukeen azkeneko gauza, traba guztien erantzukizuna erakunde eta legegileengan soilik jartzeari, irakurle erosoak bere besaulkitik buruarekin baiezkoa eginez irakur dezan, bere burua kontutan hartzeke. Ezin utzi aipatu gabe, ondorioz, bestea ezagutzeko interesari jartzen dizkiogun traba mentalak.

Amaitzeko, eskerrak HITZari gaur eskainitako leku honengatik. Ulertu nahi duenarentzat, ezer esan gabe asko esateko saiakera izan da hau. Berrirakurtzeko edo sakontzeko asti/interesik bai? Erantzuna baiezkoa bada, lortutaz emango dugu tartetxo honi etekina ateratzeari helburua.

Eguberrien gertutasuna nabaria izan da azokako erosleen artean

Azoka » Barazki zerrenda oso zabala izan zen, eta guztietan aipatzekoak mota guztietako azak eta gardua.

PABLO ALBERDI

Azoko azoka eguna nahiz eta lasaia hasi, guztira, animoso suertatu zen, eta giro ederrean igaro zen. Eskaintza zabala izan genuen, eta nabaritu genuen mallen eta erosleen artean Gabonetako gertutasuna.

Barazki zerrenda oso ederra izan genuen, eta denen artean, gardua edo eta mota guztitako azak aipatzekoak deiturikoak. Fruta zerrenda ere oso zabala izan genuen; errezil sagarra, sagar gorria, udarea, mizpiradia, kiwia, itxaurra edo eta urra besteen artean.

Atari kalean izan ziren salgai gabonetako pinuak edo eta Picea abies excelsa deiturikoak. Datoren asterako ere izango ditugu aukeran gabonetako apaingarri eta landare asko.

» ATZOKO AZOKA

	Merka.	Gares.
Berdura plaza		
Biola	1,00	1,20
Salbia	5,00	2,20
Xarbotia	4,00	6,00
Erromeroa	4,00	6,00
Txinatar kraelina	2,50	-
Siemprebivas	6,00	-
Gerbera	12,00	-
Bertako produktak		
Pikua	2,00	-
Gamuza	14,00	-
Errezil sagarra	0,80	8,00
Intxaurra	2,50	4,00
Gaztaina	3,00	-
Tolosako babarruna	8,00	12,00
Kalabaza	1,50	3,00
Urrak	2,00	3,00
Produktu ekologikoak		
Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Dilistak	2,40	-
Aza	2,50	3,00



'Bonbereneak 10 urte' liburua kalean

TOLOSA » Bonbereneak *Bonbereneak 10 urte* liburua aurkezteko Triangulon Bonberenea Txarangak plaza alaitu zuen. Ondoren, Jone anoetarrak kontzertua eskaini zuen arkupean. Liburu honetan, 10 urtetan zehar Bon-

bereneatik igaro diren talde eta ekitaldi ia guztien argazkiak biltzen dituzte, historia, kronologia argazkitan, prentsa, kartelak, hemerroteka eta eskerrak. Egin duten guztiaren testigantza osatu bat da. N. URBIZU



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitzan.info / Tel.: 943-65 56 95

Patinen gainean trebatuak alde batetik, eta azkarak bestetik

Kirola » Asteasun eta Zizurkilén mendia eta kirola dute protagonista egun hauetan; jolasa eta lasterketa kulturarekin batzen jakin dute.

NERE ARIBIZU

Mendi Astea Asteasun eta Kirol Asteburua Zizurkilén heriotzen ari dira. Kirola eta mendia dira protagonista biek, baina herri arteak ematen diote bizia. Jendearen erantzuna ona izaten ari da biek, parte-hartzean islaturik.

Asteasun orientazioa

09:30a baino lehen Asteasuko plazan mudi gaste koadrila bat zegoen, Orientazio lasterketan parte hartzeko sasoan. Banaia bereziki-koa, baina mutilak, temati antza,

binaka eta hirunaka antolatuta ziren herriko puntu esberdinak bilatzeko. Gasteenok 15 puntu topatu behar izan zituzten, eta helduek, berriak.

Quarta 30 bat lagun animatu ziren, txiki batzuk amen laguntza izan zuten. Antolatzaileak ere pozik daude emaitzarengatik. Sariak bakarrean banatu zituzten.

Zizurkilén patinen gainean

Zizurkilén Kirol Asteburua antolatuta zuten eta atzo patinatzen aritu ziren. Jolasen. Monitore batzuk

egun ziren Pedro Mari Otaloa ikas-terreko pilotalekuan azalpenak ematen, jakiteko nola egin berriak prestatzen zituzten probak. 50 bat haurrek jarri zituzten patinak eta han egon ziren ostropak gaudien. Ondoren, herri, opari bina-keta eta merienda ere jaso zuten patinatzaileak.

Gaur, herri kirolak

Zizurkilég Kirol Asteburuari anaien emetelo gaur izango dira azken ekitaldiak. Herri kirolen jaialdia antolatuta dute 12:00etan aurrera. Intxaur frontoian. Izan handiko harri-jasotzaileak, eta aitzolariak elkarriko dira bertan. Larrere, Otegi, Mari Jose Sanbon, Miren Urkioa, Ixeta II, eta Goena- txoi izango dira tartean.



Asteasun orientazio lasterketan bi gasteenok puntu bat aurkitu zuten. N. ARIBIZU



Zesta-puntako Udazken topaketak

TOLOSA » Tolosako Beotibar eta Uzturpe frontoietan zesta-punta partidak izan dira ikusgai. Atzo, Beotiba-ren Tolosako Beotibar Zesta-Punta elkartek antolatutako Udazkenko topaketak izan ziren. Udazken osan zehar Gipuzkoan aritu dira zesta-puntista gaste-orenak pilota jaialdak egiten, eta azkenekoa atzo izan zen. 50 puntista (jalebiak eta infanbiak) elkartu

ziren, eta kineletan aritu ziren. Infanbiak, aldi, kineletan aritu ondoren, binkakako finala jokatu dute. Murrutu, Zumai, Donostia eta Tolosako gasteak gogo biziz jokatu zuten eta ustaldia ematen. Azken-ean, origami gisara, domina bana jasoko duten parte-hartzaile guztiak eta Beotibar Zesta-Punta Elkarteko-ak ondo irabazitako merienda izan zuten. L.



Datorren ostegunean, hilaren 20an, 18:30ean **JOKIN BILDARRATZ** Tolosako alkatearekin elkarriketa digitala. HITZAren erredakzioan izango dugu zuen galderak erantzuteko.

Bidali aurrez zuen galderak www.tolosaldeko-hitza.info webgunean. Egunean bertan ere zuzenean galderak bidali ahalko dituzue.

www.tolosaldeko-hitza.info

Ibarran hauteskundeen aurretik abikimendua adierazi zioten ezker abertzaleari 60 lagunek. Abikimendu honek «Euskal Herriak independentzia nahi duen ala ez» defendatzen du.

Ezker abertzaleari atxikimendua



Ibarran atzo, euskal naziaren aldeko elkarretarata egin zutenekoa. L. ARIBIZU

EBERDIAZIOA

Atzo ibartarrek «baien atxikimen- duna» adierazi zioten hauteskun- deen atarian, ezker abertzaleari. Haien ustez «ezker abertzaleak aurkitzen duen proiektuari esker, marko demokratikoa eskuratzeko- rekin batera, herri arteak hautatu ahal izango dute Euskal Herria in- dependentzia izan nahi duten».

Hauen esanetan, «independent- triak, menpekotasun ule lartzak atzean uzteko parada emango du, beste herriekin barrena jaso eta leialak erakitzeko bidea, alegia». Gaineratzen dute, «independent- triari esker, euskal herriaren be- rriak lekua aurkituko dute mun- duan, berriak nahi dutena eta ez besteei komeni zaiena». Arrazoi hauek guztiak dirudimedio, «in- dependentziaren aldeko auzia» egin zuten atzoko agerraldian ibarta- rrek. Hau da, «euskal estatua oso- tzearen aldekoa», eta aldarrikatu zuten ez dela «zilegi independen- tia grina aukera politikorik gabe uztea».

Honenbestez, «oso garrantzi- tuztatzen dute ezker abertza- lekoek hurrengo hauteskunde- tan euskal ageroki politikoan, «independentziaren aldeko es- kubide guztiak izatea». Salatzan dute, EAE-ANV ilegalizatzea edo hauteskundeetan parte hartzeko aukerarik gabe uztea «indep- endentzia zaleen eskubideak urra- tzea» dela. Horregatik, «indep- endentziaren aldeko apustua egiten dutenek, elkarrekin jarduteko bati egin behar dutea» azaldu zuten.

«Estatu baten beharra»

Agerraldian aipatu zuten, «as- paldu euskaldunak jakin zuten menpekotasunean ez erortzeko formula Estatu baten osaketan ze- goela, eta oraingoak, ataka berdi- nean gaudu. Gure estatua osatu, besteetan artean, gure hizkuntza, kultura eta nortasuna babesteko dugu eta gure eredu propioa ezke- rrekin erabiltzeko dugu. Horretarako urrats zehatzak eman behar dira».

Oharra. Tolosako Orfeoiak Leidor Antzokian Eguerrietako emanal- dia eskainiko du, hilaren 20an, hau da, datorren ostegunean. Bestal- de, sarrerak salgai daude Leidor Antzokiko leihatilan, dagozkien ordutetan.

Ni Gipuzkoa naiz.

Gutxiok gara Gipuzkoa. Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoa hori bera. Pausoak emango ditugu gutxi artean. Plana aurrera egitea da. **2007/2011 Kudeaketa Plana**



GIPUZKOA
zurekin, aurrera. >



Udaberriren egoitza berria, irekita

TOLOSA ■ Udaberri dantza taldeak bere lokal berria inauguratu zuen atzo. Igarondo igerileku zaharretan zuten lehen biltokia, eta orain, Sakramentuen ondoko eraikin batean. Duela aste batzuetatik ona bertan gauzatzaren dituzte entseguak, baina atzo zabaldu zituen ofizialki ateak. Dantza

taldeko kide guztiek dantza egin zioten egoitza berriari eta ondoren, dantzari batek aurrerakua dantzatu zion. Jarraian taldekide guztiak barrura sartu ziren, Udaberri dantza taldearen 50 urteak biltzen dituen DVDa ikustera. ESTI EZEIZA

Tolosaldeko gaztetxe eta gazte asanbladak AHTaren aurka

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladek deituta, AHTren aurkako hainbat ekintza gauzatu zituzten atzo. Besteak beste, Tolosaldeko Laskorain, Orixe, Tolosaldeko Lanbide Heziketa Institutuko eta Inmakuladako ikasleek geldialdiak egin zituzten goizean. Manifestazioa ere egin zuten. Bestetik, Villabonan, trenan margotu zuten, «enpresa honek AHTren erakuntzan duen erantzukizuna dela eta».

Otañok positibo eman du dopin kontrolean, estimulante batengatik

ERREDAKZIOA

Unai Otañok aitzolariak positibo eman du dopin kontrolean. Honen arabera, metilfenidato hartu du. Ibartarrak adierazi duenaren arabera berri, «substanzia hori bi urteko umeak lokartzeko erabiltzen da eta ez dut horrelako hartu, ez legez kanpo dagoen besterik». Substantzia, Gipuzkoako txapelketa irabazita aurkitu zioten.

Aitzin-neurri gisa Gipuzkoako Herri Kirolen Federazioak aitzolariari lizentzia kentzea erabaki du. Bestalde, Euskal Herriko aitzolari azpitxapeldunari, zigorgisa, bi urtez geldu egotera behartu dezakete. Honez gain, txapela eta Gipuzkoako txapelketan eskuratu zituen gainontzeko sariak itzuli beharko litzuke.

Eskualdeko mendi elkarteek eta mendizaleek EHNA bultzatzen dute

Gizartea ■ Euskal Herriko Naziotasun agiria egiteko eta mendiko federazioko txartela eskatzeko garaian erabiltzeko proposatu dute.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko zenbait mendi elkarte eta mendizalek deialdia egiten diete Tolosaldeko beste zaletuei, EHNA egin eta erabiltzeko nahiz mendiko federazioko txartela egiteko garaian EHNA erabiltzeko.

Bai Euskal Herriari ekimenarekin bat eginez Aizkardi, Oargi, Haitzetan raju eta Amezketa mendi taldeek, beraien elkarteak, bazkideek euskal naziotasuna agertzeko duten eskubidea erres-



Eskualdeko mendi elkarteetako kideak eta mendizaleak agerraldian. ESTI EZEIZA

petatuko dutela adierazi dute. Beraien ustez, «EHNA aurkeztean eskatzailearen nortasuna guztiz frogatuta geratzen da». Bestetik, euskal herritar sentitzen diren elkarteetako bazkide eta lagunei EHNA egitea proposatzen diete.

Ekimen honekin bat egin dute, lehen aipatu bezala, Aizkardi, Oargi, Haitzetan raju eta Amezketa mendi taldeak. Baita, Axier Izagurre, Anjel Navas, David Etxabe, Juan Manuel Serrano eta Zizurkilgo mendizaleek. Aurkezpen ekitaldian azaldu zuten, «euskal lurretan dauden gailurrak, inork ez ditugu Espainiako edo Frantziako mendi sentitzen. Gure nortasuna bezala, euskaldunak gara eta munduko mendietan euskal mendizaleak garela aldarrikatzen dugu».

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Trikitixa.** Egoera onean dagoen trikitixa. Interesatuak deitu 669 67 36 49ra.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Zumardi Txikiaren parean (Santa Klara). 2 logela, sukalde handia, ganbara eta berogailuak. Hormigoizkoa. Uzturre aldera bistak. Deitu 665 408 635ra.

■ **Etxebizitza.** 90 m²ko etxebizitza salgai Lazkao. Deitu 689 99 76 74ra.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Artzai txakurra galdu da Hernialden. Kolore marroi argi eta beltzekoa. Tolosara joan zela uste da. Telefono zenbakia: 943 65 35 26

Zizurkilen ostalaritzan lan egiteko jendea behar da.

**Interesatuak dei dezala
606 815 000 zenbakira.**


Pasus
Jatetxea • Edaritegia

- Egunko menua
- Karta
- Dastatzeko menua
- Enpresa menuak
- Platerak eta razioak

Ernio bidea, 7 • Zizurkil
RENFE geltoki ondoan
Tel.: 943 249 775
www.pasusrestaurant.com

TOLOSALDEA GOMAILAKO L. R. INSTITUTUA

FORMAKUNTZA IKASTAROAK (Langileentzat)
KUALIFIKAZIO PROFESIOALEN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA

IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Oinarriko Automatismo Programagarriak (SIEMENS S7)	35	2008-01-14	Asteleneetik ostegunera 18:00 - 21:00
Cálculo y montaje de instalaciones de Eguzki Energia eta Termikorako Kalkuluak eta muntaia. (ACS Y BEROKUNTZA)	30	2008-01-14	
Ordenagailua. Ingurua eta mantentzea. (Internet, korreoa...)	30	2008-01-14	
Aprobisionamenduen kudeaketa	50	2008-01-21	
Aplikazio informatiko aurreratuak (Word-Excel aurreratuak)	40	2008-02-13	
Nominak eta Segurtasun Sozialeko eragiketak (informatizatuak)	30	2008-02-18	
Instaladore Elektrikorako Karnetaren prestaketa	100	2008-02-18	
CAD 3D Modelatuak eta planoak (Solid Edge)	30	2008-02-18	
Lantaldean kudeaketa (Arduradunak)	30	2008-02-18	
Kontabilitate Plan Orokor Berria eguneratzea (2008)	20	2008-03-03	

ESKAERAK ETA BESTE IKASTAROAK WEB ORRIAN

Matrikula eta informazioa: Telefonoa 943 65 11 47
Santa luzia, 17 – 20400 TOLOSA
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEGUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILA

E Elkarrizketa

ELENA BALANUTA ▶ Kantu irakaslea

Leitza » Elena Balanuta Iruñeko Maria Eugenia Etxarren eskolan kantu irakaslea da eta astean behin Leitza etortzen da asteazkenero herrian eskolak ematera.

NAIARA GARZIA

Elena Balanuta Berainen bizi den moldaviarra da eta bere herrialdeko orkestra filarmonikoan lan egin zuen bakarlari bezala eta unibertsitatean ere kantu ikasketak egin zituen. Madrilén RTVE n lan egin zuen eta orain Iruñeko Maria Eugenia Etxarren eskolako irakaslea da. Asteazkenero Leitza etortzen da, kantu eskolak ematera.

Zenbat denbora daramatzazu Leitza lanean?

Lehenengo urtean koruko kideekin lanean aritu nintzen, urte guztian zehar. 2006. urteko ikasturtearen amaieran hasi nintzen, martxo aldera.

Aurten aurrerapauso bat eman duzue?

Bai, ideia bat otu zitzaigun, jendea hobeto prestatzeko eta barruan daramakien talentua aurkitzeko: eskola bat irekitzea. Hemen aste-

«Kasu guztietan kantatzeko prozesua ia berdina da, kantu ona eman eta hartzea, alegia»

«Orain arte herria itzalita zegoen, jendeak ahal zuena egiten zuen, elizan abestu eta kito»

azketan eskola partikularrak ematen dizkiogu bere ahotsa lantzeko erabakia hartu duen edonori. Lehenengo soilik koruarekin lan egin genuen, taldeka, mezo-sopranoak alde batetik, sopranoak bestetik... eta ahotsik hoberenak zituztenak aukeratu genituen bakarlari bezala prestatzeko, eta hauei denbora gehixeago eskaini genien. Baina aurten koruarekin lan egiteaz gain, eskola bat irekitzea erabaki dugu, prestatu nahi duen jendeari aukera gehiago emateko, eta talentuak aurkitzeko.

Koruan, beraz, taldeka prestatzen dituzu, mezo-sopranoak, sopranoak...?

Bai, baina badaukagu koruko bizpahiru pertsona eskola partikularretara joaterik ez dutenak, eta haiei denbora gehixeago eskaintzen diet.

Zure helburua irakasle bezala ahots on bat lortzea al da?

Ez. Aurrena pertsonari erreparatu behar diozu, hori ezinbestekoa da. Adibidez, hemen Leitza badut 60 urtetik gorako emakume bat eta



N. GARZIA

«Ikasle bakoitzari ikaskuntza on bat emateak betetzen nau»

ikusit diodan lehenengo gauza zera da, ahotsa oso izurratuta duela. Bere bizitza osoan zehar ahotsa ahal eta nahi bezala erabili du, eta honek kalte handia egin dio.

Ahotsa, beraz, gaizki erabiliz gero izurratu egin daiteke?

Gaizki hitz egiten duen jende askori ahotsa izurratzen zaio, lasai hitz egin ordez, gero eta gehiago izurratu ahotsa, are gehiago altxatzen baitute laringea. Hitz egiteko orduan pertsona batek ahotsak ez diola erantzuten ikusten duenean, ahots-kordak gehiago behartzen ditu, eta min gehiago egiten dio

bere buruari. Ikasle honi, adibidez, aurrena ahotsa falsettoan ongi jartzen erakutsi behar diodala ikusten dut, berak beti ahots naturalarekin abestu baitu. Gero ahotsa landuko dugu. Ze puntutaraino landu ahalko dugun, hori aldeaz aurretik ezin dut jakin, baina klaseetan emaitza onak ematen ditu. Ikasle honek denborarekin orain baino askoz hobeto abestuko du. **Ikasle gazteak ere badituzu.**

Bai, adibidez, 16 urtetako ikasle bat badut eta oso ahots aberatsa duela ikusten dut, nahiz eta laringea altxatzeko joera hori ere baduen,

bere ahotsa ez baitu hezi. Berarekin ariketa italiarrekin hasi naiz, kalitate handiakoak baitira. Gainera arreta handiagoa eskatzen diot, eta etxean ere ikasteko esaten diot. Gazte honek bere arazoak baditu abesteko orduan, baina arazo bat duenean beste bide bat bilatzen dut nik nahi dudana nota on horretara irits dadin.

Ikasle bakoitzarentzat beraz bide ezberdinak bilatzen dituzu, ez dago denentzako balio duen metodorik?

Kasu guztietan kantatzeko prozesua ia berdina da, kantu ona eman

eta hartzea, alegia. Zentzu hone-tan irakasle bakoitzak nik jaso nahi dudana gauza bera lortu nahi du. Kantua ematerakoan ikasleari erreparatu behar zaio. Adibidez, oso urduriak diren pertsonak, erraz blokeatu daitezke eta orduan ezin dute notarik eman. Horrelako ikasleekin kontu handia izan behar duzu, blokeatu ez daitezke, eta nota hori eman ahal izateko beste bide batzuk bilatu behar dituzu.

Zuri irakasle bezala zerk betetzen zaitu?

Eskola on batek edo ikasle bakoitzari ikaskuntza on bat emateak betetzen nau gehienbat. Adibidez, emakume heldu hau asko hobetzen ari da, eta hori niretzako gogobetetasun handia da. Badaukatu adibidez, Leitza kanpo beste ikasle bat, hau oso ongi prestatuta dago eta Operacion Triunfo saiora bidaltzeko asmoa du. Pertsona batek aurrera egin dezakeela ikusten badut, nire ikaskuntza guztia dedikatuko diot. Ikasle bati eman diezaioketen gauzik onena ahal duen gehiena ikasteko aukera ematea da.

Leitza kantuaire egoera nola ikusten duzu?

Leitza arlo honetaz hitz egiteko orduan gauza bat azpimarratu nahi dut: hemen Leitza badaude bi pertsona, Florencio Irurtia Pontxito eta Joxe Mari Azpiroz, koruaren alde borroka egiten ari direnak. Pertsona hauek lan handia egiten ari dira, hobeto kantatzen duten pertsonak aurkitzen, adibidez. Orain arte herria itzalita zegoen, jendeak ahal zuena egiten zuen, beharbada elizan abestu, eta kitto. Herri honentzat une historikoa bat da, kultura arloan, orain arte deskubritu gabe zegoen jendea dago, talentu handia duena.

Ahots onak aurkitzen ari zarete, beraz?

Bai, adibidez Pontxitok taberna batean herritar bateko eskolara etortzea animatu zuen. Honek ezezkoa esan zuen, baina azkenean etortzeko erabakia hartu zuen. Uste baino hobeto abesten du eta solfeorik ez jakin arren, partituras irakurtzeko gai da. Kasualitatez aurkitu ditugun pertsonak dira hauek eta nire ustez oraindik ere jende gehiago topatuko dugu. Hurrengo urtean jende gehiago etorriko dela uste dut.

Leitza abesbatzako zuzendariaren lana, beraz, hagitx garrantzitsua da, zure ustez?

Bai, hau guztia aurrera ateratzeko lan egiten ari da. Azken batean niri ematen ditudan eskolengatik ordaindu egiten didate, baina berak ez du ezer kobratzen. Ikaragarri lan ona egiten ari da, ez da batere erraza kaleko jendearik lan egin (hau da, profesionalak ez direnkin) eta horrelako emaitzak lortzea. Lan egin dudana beste herri batzuetan zuzendarien helburua xumeagoa zen, ongi pasatzea, beharbada, baina bera oso bizkorra da eta musikaz asko daki.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Belauntza.** Igande honetan, abenduak 16, 12:30ean Belauntza-ko Elizan Araotz Gazte Abesbatzak kontzertu bat eskainiko du.

Azoka

■ **Bedaio.** Bedaioiko I Azoka Berezia 10:00etan hasita bertako produktuekin.

Zinema

■ **Tolosa.** 300 filma emango dute Bonbereneako zine-klubean 19:30ean.

■ **Villabona.** *Stardust* haurrentzako filma emango dute Gurea zine-ma gaur 17:00etan.

■ **Villabona.** *Leones por corderos* filma, gaur 19:30ean eta bihar 21:30ean

Deialdiak

■ **Tolosa.** Merkatu Txikia Ekuador, Honduras, Eritrea eta Bombay-era laguntza bidaltzeko parrokiako lokaletan. Laskorain ikastolak antolatuko du.

Kirola

■ **Ibarra.** Ibarako Kirol Astea: patina gaineko jolasak txiki-entzako eta Gipuzkoako taldeakako Xake Txapelketa 10:00etan Belabieta kiroldegian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK GAUR

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaroz auzoa, 9. 943 675118.

BIHAR

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Xumeak bezain eskertzekoak

Tolosa » Galtzaundik V. Eskerrak Zuri sariak banatu zituen: Pepi Gorostidiri, Hegoalderi, Udaberri eta odol-emaileei.

NEREA URBIZU

Galtzaundik Euskara Taldeak V. Eskerrak Zuri Aipamen Berezia burutu zuen herenegun, Tolosako udaletxean. Hainbat taldek edo pertsonen urtean zehar egin duten lana publikoki eskertzeko helburuarekin banatzen dituzte hauek, xumea bezain eskertzeko.

Aurten, ohorezko saria Pepi Gorostidiri eman diote, «militante sutsu izanik, haren belaunaldiari esker ikastolak abian jarri zituzten eta bere alaba ikastolan ikasitako lehen urtekoa da. Euskararen alde lan egin duen pertsona da Pepi eta gutar bilakatu nahi izan dugu ohorezko sari honekin». Zaldunitako Xabier Garikanok eman zion saria eta Gorostidik, ondoren, eskerrak eman zituen, «presoei ere euskararen alde» egiten dutela adieraziz, eta «peaje luze eta gogorra pasatzen ari garela» gogoratuz. Saria belaunaldi berriari eta presoei eskaini nahi izan zien.

Hegoaldeko areto futbol taldeko neskek jaso zuten kirolaren saria, kirola eta emakumea ederreko asko lotzen jakin duelako, eta Tolosaldean eta Euskal Herrian erdugarri izan dela adierazi zuen Angela Alamo Galtzaundiko kultur dinamizatzaileak gogoratu bezala. «Harro egon gara beti, baina aitopren seriorik ez dugu egin».

Udaberri dantza taldea

Jon Mirandak Kulturari dagokion *Eskerrak zuri* aipamena zeini dagokion ezagutzera eman zuen,

Udaberri dantza taldea zela adieraziz. «50 urte bete ditu eta krisiak izan baditu ere hor jarraitzen du: Udaberri bizirik dago». Euskal dantza kanpora ateratzeko lan handia egin du. Saria dantza taldeko bi ordezkari jaso zuten.

Odol-emaileek gizatasunarena

Gizatasun aipamena odol-emaileek jaso dute. Iker Usonek odol-emaileen funtzioa eta beharra go-raipatu zituen besteen artean. «Odola bizia salbatzeko beharrezkoa da eta odol-emaileen beharra lortzeko lana egin behar izan da: premia ikusi zuten eta lanean aritu dira». Xabier Urzelai jaso zuen saria denen izenean: «Odola behin ematea bizi salbatzea dela esaten da, eta odola urtean bitan ematea, odol-emaile izatea».

Ondoren, Galtzaundik euskara taldeak prestatutako lunch-era hurbildu ziren bertaratu zirenak. Galtzaundik euskara taldeak dioten bezala, «ekitaldi xumea izaten da Eskerrak zuri, aipamen ekitaldia delako», baina bertaratu zirenek, Galtzaundik hasiera-hasieratik egin zuen bezala, eskerrak bihotzez eman zituzten.



Ezker-eskuin: Xabier Urzelai, Garazi Artetxe, Pepi Gorostidi, Garikoitz Llobregat eta Hegoaldeko futbol taldeko kidea. HITZA



Leire Zubeldia eta Jon Ander Ubeda, sari banaketan. HITZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa
h

Saskia

Gorrotxategi gozotegiko produktuez osaturiko saskia zozketatuko dugu harpidedun guztien artean!

HITZAren harpidedunentzat abantailak



GORROTXATEGI

Plaza Zarra, 7
TOLOSA
Tel.: 943 67 07 27
Fax: 943 67 57 39

Sarrera pare bat

deitu eta eskuratu

Tolosako Orfeoia
Orfeón de Tolosa



Eguberritako
Kontzertua

abenduaren 20an • osteguna • 20:30tan
Tolosako Leidorren

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**